

<p><b>BAZTANGO, BORTZIRIETAKO ETA MALERREKAKO EUSKARA ZERBITZUEK TURISTEI ESKUALDE HAUETAKO HIZKUNTZA ERREALITATEAREN BERRI EMATEKO ARGITALPENA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi formatutan eskuratzen ahal da: paperean eta PDFn, sakelakoetan erraz erabiltzeko moduan.</li> <li>• Aste Santu aitzinetik zabalduko da hiru eskualdeetako turismo bulego eta toki turistiko garrantzitsuenen bitartez, baita euskara zerbitzuen bitartez ere.</li> <li>• Euskara zerbitzuek <i>Uraren Bailarak</i> eta <i>Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoaren</i> laguntza jaso dute argitalpena turisten artean banatzeko.</li> </ul> <p>Argitalpenak Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako hizkuntza errealitatearen berri ematen duen azalpen labur bat dakar euskaraz, gaztelera, frantsesez, katalanez eta ingelesez. Azalpenean azpimarratzen da eskualde hauetan euskara hizkuntza bizia dela, eta horrez gain, bisitariei ahal duten neurrian euskara erabiltzeko gonbita egiten zaie. Horretarako oinarrizko hiztegi bat erantsi da, gaztelera, frantsesa, katalana eta inglesera itzulia.</p> <p>Euskara zerbitzuez gainera, turismo arloko eragileek gisa honetako argitalpenaren beharra ikusi dute. Izan ere, eskualde hauetako promozio turistikoa lantzen denean, bertako paisaia, baliabideak, kultura, ohiturak eta tokiak kontuan hartzen dira, baina ez da berdin jokatzen hizkuntzarekin; eta euskara ere bada Baztanen, Malerreka eta Bortzirien marka. Hortaz, gabezia horri aurre egin nahian prestatu dute argitalpen hau.</p> <p>Aste Santurako hiru eskualdeetako turismo bulego eta toki turistiko garrantzitsuetan egonen da. Edozein kasutan, turismo arloko edozein eragilek argitalpenaren ale batzuk eskuratu nahiko balitu, nahikoa luke hiru eskualdeetako edozein euskara zerbitzuekin harremanetan jartzearekin. <i>Uraren Bailarak</i> eta <i>Baztan-Bidasoa Turismo</i></p>	<p><b>PUBLICACIÓN DE LOS SERVICIOS DE EUSKERA DE BAZTAN, MALERREKA Y BORTZIRIAK PARA DAR A CONOCER A TURISTAS LA REALIDAD LINGÜÍSTICA DE ESTAS COMARCAS</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Se puede conseguir en dos formatos: en papel y en pdf, de fácil uso en móviles.</li> <li>• Se distribuirá antes de Semana Santa a través de las oficinas de turismo y los principales lugares turísticos de las tres comarcas, así como a través de los servicios de euskera.</li> <li>• Los servicios de euskera han recibido la ayuda de <i>Uraren Bailarak</i> y la Asociación Turística <i>Baztan-Bidasoa</i> para distribuir la publicación entre las y los turistas.</li> </ul> <p>La publicación presenta una breve descripción de la realidad lingüística de Baztan, Bortziriak y Malerreka en euskera, castellano, francés, catalán e inglés. En esta descripción se remarca que en estas comarcas el euskera es una lengua viva y se invita a las personas visitantes a que utilicen el euskera en la medida de sus posibilidades. Para ello se incluye un diccionario básico traducido al castellano, francés, catalán e inglés.</p> <p>Además de los servicios de euskera, los agentes turísticos han visto la necesidad de este tipo de publicación. Y es que cuando se trabaja la promoción turística de estas comarcas se tiene en cuenta su paisaje, sus recursos, su cultura, sus costumbres y sus lugares, pero no se hace lo mismo con la lengua, y el euskera es también la marca de Baztan, Malerreka y Bortziriak. Esta publicación pretende paliar esta carencia.</p> <p>En Semana Santa estará disponible en las oficinas de turismo y en los principales lugares turísticos de las tres comarcas. En cualquier caso, si cualquier agente turístico quisiera disponer de algunos ejemplares de la publicación, bastaría con ponerse en contacto con cualquiera de los tres servicios de euskera. <i>Uraren Bailarak</i> y la Asociación</p>
--	--

<i>Elkargoak ere banaketarekin lagunduko dute.</i>	<i>Turística Baztan-Bidasoa colaborarán con la distribución.</i>
--	--

Informazio gehiago nahi izanez gero:

**Baztango Udala-Euskara Zerbitzua**  
948 580 006  
[euskara@baztan.eus](mailto:euskara@baztan.eus)

**Bortzirietako Euskara Mankomunitatea**  
948 634 125  
[euskara@bortziriak.eus](mailto:euskara@bortziriak.eus)

**Malerrekako Mankomunitatea-Euskara Zerbitzua**  
948 451 746  
[euskarazerbitzua@malerreka.eus](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.eus)